GRALaren DEFENTSA ON LINE BIDEZ
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako
Gradua (*2020/2021 IKASTURTEA*)

Bizi dugun ezohiko egoera dela-eta, 2020/21 ikasturteko ekaineko eta iraileko deialditako Gradu Amaierako Lanaren (GRAL) defentsak aurkezpen birtualen bidez egingo da (Blackboard Collaborate-BBC plataforma), ohiko modu presentzialaren ordez. Kudeaketa errazteko, berrikuntza nabarmena dela kontuan hartuta, jarraitu beharreko jarraibide batzuk adierazten dira jarraian:

- Hauek egon beharko dira nahitaez GRALaren defentsan: **presidentea, idazkaria, zuzendaria eta ikaslea**. Hala ere, ordezkoak estekarako sarbidea izan beharko du, eta, beharrezkoa izanez gero, bertaratzeko prest egon beharko du.
- GRALen defentsa **publikoa** da. Egela-n (Gradu ikasgelan) argitaratuko da defentsen zerrenda, epaimahaiarekin, ordutegiarekin eta ekitaldiaren BBC-ko estekarekin,.
- **Zuzendaria** arduratuko da teknikariari (jesusangel.larrinaga@ehu.eus) eta epaimahaiko kideei defentsa-eguna eta -ordua bidaltzeaz, bai eta bilerako BBC-ko esteka sortzeaz eta bidaltzeaz ere (https://www.ehu.eus/bilerak) ikasleari, epaimahaiko kide guztiei, ordezkoa barne, eta teknikariari, horrek webgunean **2021ko otsailaren 4a, ekainaren 3a eta irailaren 30a baino lehen** argitaratu ahal dezan. BBCren bilera horrek **45 minutuko iraupena izan beharko du** gutxienez, bertaratutako guztiei sartzeko denbora emateko.
- Presidenteak GRALaren aurkezpena egingo du, eta ikasleari jakinaraziko dio aurkezpenak **gehienez 15 minutu** iraungo duela, eta, ondoren, ikasleari emango dio hitza. Ondoren, epaimahaiak **10 minutu** izango ditu **galderak egiteko**, eta ikasleari eta bertaratutako gainerakoei eskatuko zaie bileratik ateratzeko eta **5 minutu** beranduago berriz konektatzeko.

- **5 minutu horietan** epaimahaiak kalifikazioari buruzko erabakia hartuko du eta **idazkariak** aldez aurretik webgunetik deskargatu den **akta idatziko du**. (https://www.ehu.eus/es/web/hezkuntza-eta-kirol-fakultatea/gral-kirola).
- 5 minutu igaro ondoren, ikaslea berriro sartuko da bilerara, eta **presidenteak kalifikazioa jakinaraziko dio** ikasleari.
- **Ikasleari galdetuko zaio** ea **defentsa grabatzea nahi duen** (15 minutuko azalpena) eta **GRALaren** kalifikazioa jakinarazi zaio (azken 5 minutuetan). Ezin dugu ahaztu **ikasleen eskubidea** dela; beraz, hark nahi izanez gero, aukera hori eskaini beharko zaio, eta berariaz zehaztu beharko da ahotsa grabatuko dela, eta ez irudia. Grabazioa zaintzan gorde beharko da, aktak itxi arte, behintzat.
- Ikaslea **ohorezko matrikula**rako proposatzen bada, epaimahaiak aldez aurretik webgunetik deskargatu den **txosten** bat idatzi beharko du hura proposatzeko arrazoiak jasota, eta koordinatzaileari bidali (cristina.granados@ehu.eus) egun bateko epean. Ikasleari proposamenaren berri eman beharko zaio, eta adierazi horrek aktaren itxiera deiaren defentsak amaitu arte atzeratu dezakeela. **GRALen koordinazioak** erabakiko ditu matrikulak, **ezarritako irizpideak** aplikatuta (defentsaren nota, eta berdinketarik egonez gero, ikaslearen batez besteko nota).
- Azkenik, **idazkariak akta sinatu, eskaneatu eta fakultateko idazkaritzara bidali beharko du** (secretaria.afd@ehu.eus) posta elektronikoz.
- Tribunaleko idazkariak ondoren sortutako **GRALen aktak digitalak telematikoki kalifikatu, expedientera pasa eta sinatu beharko dira**, ahal dela. **Ohorezko matrikula** proposatutakoa **izan ezik**, kasu horretan **EZIN dira kalifikatu**. **Zentruko idazkaritzak**, koordinazioak ohorezko matrikulak erabaki eta gero, **egingo duelako**.

- **Izan daitezkeen konexio arazoak saihesteko**, gomendatzen da ikasleek eta irakasleek defentsarako **baldintza teknologiko egokiak baliatu** ditzazuen.
- Ikasleak edo kideetako batek **defentsa egin bitartean konexio arazoren bat** izanez gero, egun bereko edo hurrengo egunetako **beste une batean egin beharko da berriro**, parte hartzaile guztiek eguna eta ordua adostu ondoren. Aldaketa hori aurrez jakinarazi beharko zaio GRALen Koordinazioari.
- Defentsa egiten den **bigarren aldian** berriz ere konexio arazoak badaude, **Koordinazioak erabakiko du defentsa nola egin**, eta ikasleari eta epaimahaikideei jakinaraziko die.
- Azkenik, **BBCn lehenago saialdi bat egiteko** aholkatzen zaie zuzendariari eta ikasleari, bertaratutako **guztiei** moderatzailearen rola esleituta.
- **Plagio** egoeraren bat antzemanez gero, ikasleak ezin izango du aukeratutako gaiarekin jarraitu, ezta esleitutako zuzendariarekin ere; ondorioz, prozesu osoa errepikatu beharko du, eta, horretarako, lanerako beste gai bat aukeratu beharko du. Era berean, esleitutako zuzendari berriak egoeraren berri izango du.

Zalantzarik izanez gero, koordinatzailearengana jo (cristina.granados@ehu.eus) edo teknikariarengana (jesusangel.larrinaga@ehu.eus).

Eskerrik asko egiten ari zareten ahaleginagatik!

GRALen Koordinazioa